

ZENBAT BURU

Alberto Iriondo

ERREPORTAIA

Olaizaga kiroldegia
ren 10. urteurrena

BARRREN

1998ko azaroaren 6a
V. urtea - 255. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

UDALETXETIK

Albitxuri
induetria
izendatu

BERBET

Rita Ega
abokatu

GEHIGA

Kalezulo
ra



OLAIZAGA
KIROLDEGIA

10
urteko ibilbidea

'Zuk zeuk landu behar duzu zure gorputza, inork ez baitu zure partez egingo' Spencer




"la Caixa"

BARTZELONAKO AURREZKI ETA
PENTSIO KUTXA



Elgoibartar guztientzat zabaldu dugun
bulego berria zuen zerbitzura



ALBERTO IRIONDO

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

'Libertad'

Egunero egunkariren bat irakurtzen duen horietakoa naiz, baina askotan, egia eta informazioaren eredutzat jotzen den komunikabide honen lana, 'gutxienez' orijinala dela pentsatzen dut, eta hau ulertzeko ez dago adibide bat baino gauza hobe eta argiagorik:

Pentsa dezagun **IGANDEAN** Monica Lewinskyk Euskal Herrira etorri behar duela Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen bekei buruzko hitzaldi bat ematera, eta jakina, egunkariak, bisita horren berri aurretik eman behar dute. Seguraski, sekuentziazioa honako hau izango litzateke: **ASTEARTEAN** igandeko bisita iragartzen da. **ASTEAZKENEAN** bekei buruzko artikulua. **OSTEGUNEAN** Monica Lewinskyren biografia. **OSTIRALEAN** hitzaldi horren kontrako iritziak. **LARUNBATEAN**, biharko bisita iragartzen da. **IGANDEAN** gaurko bisita komentatzen da. **ASTELEHENEAN** atzoko bisitaren azken xehetasunak... Kontuak kontu, zazpi egun jarraian albiste bakar batekin, eta zazpietan lor-tu dute gure atentzioa, hori da artea!

Ez dut ukatuko orain eta hemen Prentsak gure gizarten duen garrantzia (hala ere, nire iritzi umiletik komunikabiderik fidagarriena

da), baina ezin da ukatu batzuetan tontotzat hartzen gaitzuela. Dena den, badaude nirea baino teoria erradikalagoak, eta bestela entzun dezagun Quino komikigilearen pertsonaia baten iritzia. Pertsonaia honen izena "Libertad" da, eta honako hau bere salaketa:

"Ez dut ukatuko orain eta hemen Prentsak gure gizartean duen garrantzia (hala ere, nire iritzi umiletik komunikabiderik fidagarriena da), baina ezin da ukatu batzuetan tontotzat hartzen gaitzuela"

"Egunkariak gertatzen denaren %50a kontatzen dute, eta kontatzen dutenaren %50a asmatzen dutela kontuan hartzen badugu, esan dezakegu egunkariak ez dutela ezer kontatzen".

Matematiko batek, planteamendu honetan akatsen bat dagoela esan diezadake, baina orijinala dela ere bai, egunkariak bezain ori-

jinala, behintzat.

Baina, batez ere, "Libertad"en akusazio hau titularrei dagokie... Artikulu ugari hain dira aspergarriak, non titular erakargarriak erabiltzen dituzten ahalik eta irakurle gehien erakartzeko. Nik, maltzurki, ikasle on batek bezala, truko horri eutsi diot, eta nire artikulua Goenkale bezain dijerrigaitza izango zenez, jakinmina sor zezakeen izenburu batekin apaindu dut, artikuluekin zerikusirik ez zuela kontuan hartu gabe. Bai, agian engainatu egin zaituztet, baina milaka egunkarik defendatu eta arintzen dute nire delitua.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:

barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA Miren Moreno

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRATIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maider Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loiola,

Ongarri Zine Kluba, Asier Orbea,

Julian Segundo, Jon Suarez,

Anjel Ugarteburu, Iban Urizar,

Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlearitzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



Arratoiak ugaritu egin direla dirudi

Erreka ondoan bizi garenek nahi baino sarriago ikusi izan ditugu arratoiak eta xaguak ibai ertzean edo ur zikinak irteten diren tuboan inguruan. Hala ere, aspaldi honetan arratoiak gutxituta zeudela pentsatzen nuen baina horrela ez dela egaitzatzen duten hainbat gauza gertatu zaizkit azken boladan. Abuztuan, Leku-Ederren gure umearekin pasiaran geundela (gu bezala beste ama batzuk zeuden euren umeekin), halako batean, arratoi bat ikusi genuen. Baina kontua ez da hor amaitzen. Joan den astean, Madalako parkeko zakarrontzi batera paper bat botatzera joan nintzenez, hara non ikusten dudan arratoi nazkagarri bat zakarrontzian gora eta behera. A zer iguina! Azkena kontatuko dizuet. Gu Madalan bizi gara, erreka ondoan. Pasa den zapatuan, terrazako atea zabalik eduki genuen eta bat-batean xagu bat sartu zen etxe barrura. Hura gehiegi iruditu zitzaidan. Arazoaren larritasunaz ohartu eta Udaltean parte eman nuen.

Eskutitz honen asmoa ez da alarma sortzea baina arazoa inportantea eta serioa dela iruditzen zait. Herritarrak eta batez ere udal agintariak arazoaren garrantziaz ohartarazi nahi ditut. Badakit arratoiak hiltzeko benenoa botatzen dutela baina agian ez da nahikoa. Baliteke benenoa sarriago botata edo beneno fuertegoa erabilita arratoinen gehitze hau geratzea.

B. Andonegi

Igoera politiko berriaren aurrean

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeak, gaur egungo egoera politiko berriaren aurrean, zera adierazi nahi du:

Alde batetik, garbi geratu dela azken hauteskunde hauetan, kanpotarren eta gutxien daukatenen beldurra erabili dutenek, komunitateen banaketarekin jokatu dutenek, Espainiaren eta gezuraren aldeko apustua egin dutenek, ez dutela ezer irabazterik lortu.

Euskal Elkarte Autonomoko gizarteak Lizarra-Garaziren alde egin du, subiranotasunaren alde, giza eskubideen alde eta Euskal Presoen Euskalerriratzearen alde. Beraz, gizarte honen gehiengoak gatazkaren izaera politikoa onartu duten erakunde eta elkarteekin bat egin du.

Bestalde, hauteskunde hauetan gertatutakoak eta ETaren su-etenak sortutako egoera berriak, etorkizunean zenbait aldaketa gertatuko diren susmoa sortarazi digute, presoengan ezezik, senide, lagun eta gizartean ere nolabaiteko itxaropena ekarri duelarik.

Bi arrazoi hauengatik, gaur egun, gure ustez, Euskal Presoak berehala Euskal Herrira ekar ditzaten baldintzak jarrita daude jadanik. Aspaldi jarrita, gainera. Bada garaia espainiar estatukoek euskal gizartearen oihua entzun eta euren legeak betetzeko, ez txantaia bezala, betebeharra delako baizik. Izaera politikoa duen gatazkaren konponketa egia izan dadin, gure presoek Amnistia Osoa zor diegula deritzogu.

Orain bertan, presoak Euskalerriratzea eta Amnistia Osoa, Autodeterminazioaren Eskubidearekin eta Lurraldetasun Eskubidearekin batera, bake prozesuaren hasieran kokatzeko ezinbestekoak direlakoan, dei egiten dizuegu, inoiz baino gehiago, gure ekintzetan parte har dezazuen, Erreinu espainiarraren burugogorkeriaren aurrean, gureak diren eskubideak eta presoen eskubideak (Amnistia Osoa) ahalik eta ozenen eskatzeko, ahalik eta azkarren lortzeko, guztiak. Batez ere, preso eta senideek pairatzen duten sufrimenduarekin bukatzeko.

Presoak kalera, amnistia osoa.

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordea

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

KEXAK

◆ Bi herritarrek ondoko kexa hau bidali digute: “oso aspertuta gaude herrian aparkalekurik ez dagoelako. Normalean jendeak autoaren udal-zergak ordaintzen ditu, baina askotan, herri honetan, beste batzuetan ez bezala, ez da aparkatzeko lekurik egoten. Noizko aparkalekuak?”

◆ Herritar baten iritziz, “eliza atzeko parkea oso abandonatuta dago. Piska bat apaindu beharko litzateke, aberastasun handia du zuhaitzei dago-kienean eta nire ustez merezi du berreskuratzea”.

TXALOAK

◆ Bernardo Ezenarro kalean, San Rokeko zubia-
ren azpian dauden lur sail txiki batzuetan, loreak
landatzeaz eta zaintzeaz arduratzen den Iñaki In-
sausti txalotu nahi du emakume batek. “Gizon ho-
nek egiten duen lana estimatzekoa da, oso txukuna
eta polita jarri du ingurua. Herritar guztiok gure in-
guruko txokoak horren kurioso edukitzeaz arduratu-
ko bagina, bestelako irudia izango luke Elgoibarrek”.



B AI, E S A N ?



J. I. Sarasua

Euskal Mendizale
Federazioko idazkaria

Euskal Mendizale Federazioaren eta Nafarroako Mendizale Fe-
derazioaren arteko harremanak ez omen daude unerik goxoene-
an. Joan den zapatuan Elgoibarko IMH ikastetxean batzarra
izan zuten bi Federaziotako bazkideek. 100 bat mendi elkar-
teetako ordezkariak elkartu ziren eta jakin dugunez, tirabirak izan
ziren federatuen aseguruak direla-eta. **Jose Inazio Sarasua**
Euskal Mendizale Federazioko idazkaria da eta arazo honek
bete-bete harrapatu du.

- **Joan den zapatuan Euskal Mendizale Federaziokoek eta**
Nafarroakoek bilera egin zenuten. Tirabirak egon direla
entzun dugu. - Arazoa federatuen aseguru dala-eta etorri da.
Orain arte Euskal Mendi Federazioak eta Nafarruakuak batera
ein izan dou segurua, 22.000 bazkidentzako. Euskal Mendiza-
le Federaziuak enpresa batekin ein dau aseguru-polizierean kon-
tratu eta itxura danez, Nafarruakuak beste batekin ein dau. Bi-
leria arazo hau konpontzeko ein zan. Bileran federazioetatik
kanpo dauan jendiakin komisio bat sortzia erabaki zan konpon-
bide batera ailegatzeko.

- **Arazoaren muina beste bat omen da.** - Bai. Gertatzen dana da,
azken aldixan, Nafarruako federatu kopurua asko jaitsi dala eta eu-
rek esaten dabe aseguru oso garestixa zalako gertatu zala jaitsie-
ria. Horregatik seguru merkiaua lortu dabe federatu kopurua han-
ditzeko asmuakin. Txarrena da, Nafarroako zenbait egunkaritan
esan dutela Euskal Mendizale Federaziokoak nafarrei autonomia
kentzen ahalegindu gerala. Zein interes euki dezaket nik edo Pako
Iriondo presidentiak Nafarrua kanpuan lagatzeko? Horrelako gau-
zak entzun ditzugu eta min ematen dabe. Honen azpitan arazo po-
litiko bat dao argi eta garbi eta hori da konpondu bihar dana.

- **Hala ere, gauzak bere onera joango diren esperantza izango**
duzu, ezta? - Bai, bilera nahiko ondo jun zan baina nere ustez
arazo hauek guk konpondu bihar ditzugu. Zaila da kanpoko jen-
diak aspalditxik datorren arazo bat konpontzia. Lehen esan doten
bezela azpitan arazo politiko bat dao, Nafarroa eta Euskadiren
artekua. Bi hitzetan esanda: bagera edo ez gera. Hor dao gakua.



I. URTEURRENA

1997ko azaroaren 8an, 30 urte zituela hil zen
SERAFIN FREITAS PROLen oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian
larunbatean, hilak 7, arratsaldeko 19:00etan.
Joaten zaretanoi eskerrak alde zurretik.





Hamar urte, 2.250 bazkide, 800 erabiltzaile eguneko eta 15 eskaintzatik gora. Horiek dira, besteak beste, Olaizaga kiroldegiari buruzko zenbaki batzuk. 1988ko urriaren 8an inauguratu zen Elgoibarko kiroldegia eta joan den laurbatean izan zen 10. urteurreneko ospakizun ekitaldia. Kirol arloan azken hamarkadan izan diren aldaketak kontuan hartuz garai berrietara egokitzen joan da kiroldegia eta gaur egun elgoibartar askoren elkargunea da. Zorionak eta beste horrenbeste bete ditzala, gutxienez.

OLAIZAGA KIROLDEGIAK

10 urte bete ditu

Esan bezala, 1988ko urriaren 8an inauguratu zen ofizialki Olaizaga kiroldegia. Hala ere, aurretik, uztailearen 28an hain justu, Haritz Euskal Dantzari Taldeak II. Nazioarteko Folklore Jaialdia bertan egin zuen. Garai hartan Elgoibarko Udalean, inguruko herrietako gehienetan bezala, ez zegoen kirol teknikaririk. Kirolari buruz gaur egun baino askoz informazio gutxiago zegoen eta eza-gutza txikiagoa zen. Hortaz, kiroldegi eredu bat sortu eta, gutxi gorabehera, eredu bera jarraitzen zuten herri guztietan, beste ezer kontuan izan gabe. Elgoibarren izan zituen nahikoa kritika ireki berria zen kiroldegiak: igerilekua txikia zela, jangela, berriz, handiegia... Baina, berrikuntza zen neurrian, herritar asko egin ziren kiroldegiko bazkide.

Udalak, nahiago izan zuen kiroldegiaren gestioa enpresa espezializatu baten esku uztea. Horrela bada, Gesti-sport enpresak izan zuen Olaizagaren zuzendaritza, 1996. urtean Elgoibarko Udal Kirol Patronatua sortu eta kiroldegiaren gestioa esku munizipalera pasatu zen arte.



Santiago Zabaleta izan zen lehenengo zuzendaria eta Julio Anton bigarrena. Gaur egun, Udal Kirol Patronatuko zuzendaria, Ramon Mujika, ari da zeregin horretan. Halere, gestioa munizipala den arren, Patronatuan eskaintzen diren zerbitzuak azpikontratatu egiten dira. Beraz, Olaizaga kiroldegiaren gestioa mistoa dela esan daiteke. Batez beste, 25 langile ari dira Patronatuan, "horietatik bi Patronatuko langileak gara, ni neu eta administraria eta gainontzekoak, esan bezala, azpikontratatuta daude", azaldu digu Ramonek.

Kirol arloan aldaketa asko

Duela hamar urte kirolari buruzko eza-gutza nahiko urria zen. Orduetik hona

izugarritzko bilakaera gertatu da. Besteak beste, kirol hezkuntza lizentziatuak daude, kirola egiteko ohitura sozializatu egin da eta gero eta jende gehiagok egiten du kirola. Horren eraginez, kiroldegiaren baitan ere zenbait aldaketan beharra somatzen hasi ziren. Gainera, 1993an inauguratu ziren Mintxetako kirol instalakuntzak, hor zegoen tenis pista, Ikastolako frontoia eta abar eta kirol zerbitzu guztiak egitura bakar eta zentralizatu batean ba-

teratzearen beharra ikusi zen. Horren haritik eratu zen Udal Kirol Patronatua, eta Olaizaga kiroldegiaren gestioa aipaturiko patronatuaren eskuetara pasa zen; gestioa munizipalizatu egin zen.

Erabiltzaileen tipologia

Kirola sozializatu egin da, hau da, herritarren artean praktika gero eta zabalagoa da. Ramonek esan digun bezala, "orain dela hamar urte kirola egiten zuten gehienak gazteak ziren. Gaur egun, gazteek ere jarraitzen duten arren, eskola kirolari esker haurrek ere egiten dute kirola, hiru-garren adinekoei zuzendutako gimnasia dago eta, batez ere, emakumeen kopurua benetan handitu da. Erabiltzaile nagusia emakumea dela esango nuke. Arrazoia? Beharbada gizonak ohituagoak daude kirola euren kontura egitera baina emakumei zuzendutako kirol saioak gusatzen zaizkie, aerobik-a eta antzekoak. Dena dela, garai batean San Lorentzora gizonak bakarrik joaten ziren saltaka eta gaur egun ia emakume gehiago ibiltzen direla esango nuke". Azken batean, filosofia bat dago honen atzean. Izan ere, "mens sana in corpore sano" delako esaldiak pisu handia du bizi dugun gizarte honetan, "eta jendea kirola egitearen garrantziaz konturatu da. Kirola egitean jendea arinago sentitzen da, gusturago, autoestimarako oso ona da, besteekin erlazionatzen dira... Burua ezezik, gorputza ere landu behar da".

Jendeak kirol arloan ere hezkuntza jasotzea oso garrantzitsua da, "gure kasuan, esate baterako, urteak daramatzagu eskola eta kirola programarekin. Ikastetxeetako haurrak igeri egiten ikastera etortzen dira eta hemendik urte batzuetara jende guztiak jakingo du igeri egiten. Hori garrantzitsua da. Jendeak gero eta onartuagoa du kirola bere bizitzako arlo bat gehiago dela".

la programarekin. Ikastetxeetako haurrak igeri egiten ikastera etortzen dira eta hemendik urte batzuetara jende guztiak jakingo du igeri egiten. Hori garrantzitsua da. Jendeak gero eta onartuagoa du kirola bere bizitzako arlo bat gehiago dela".

Zerbitzuaren kalitatea

Ramon Mujikak hasieratik izan zuen garbi kiroldegia Patronatuan sartzean, lehen erronka zerbitzuaren kalitatea hobetzea izango zela, "alde batetik, instalakuntzen hobekuntza eta mantenua daude. Adibidez,

Eskaintza zabala

Aerobik-a, karatea, akuaerobik-a, fitness-a, mantenu gimnasia, gimnasia erritmikoa, igeriketa eskola, saltza, sevillanak, trikiti ikastaroa... Gaur egun Olaizagaren eskaintza benetan zabala da. Herritar gehienek aurki dezakete euren gustura egokitutako kirolen bat. Ramonen hitzetan, "azken boladan, esate baterako, aerobik-ak igoera handia izan du. Jangela kendu eta gimnasio berria egokitu behar izan genuen eskaera handia zegoelako eta hala ere, zerrendetan jendea zain dago. Baina kirol arloan gauzak urterik urte aldatzen doaz". Horren haritik, Ramonek azaldu digunez, "aerobik-ak gaur egun hemen duen arrakasta duela 10 urte izan zuen Amerikan. Gaur egun, aldiz, Amerikan beste kirol mota batzuk daude modan, erlajazioarekin zerikusi gehiago dutenak, eta batez ere



kantxaren itxura guztiz aldatu eta hobetu da. Aldagelak margotu egin ditugu eta epe laburrera igerilekuko teilatua konpontzen hasi nahi dugu. Uraren kalitatea sekula baino hobea da Osakidetzak hamabostean behin analisiak egiten baititu". Hala ere, instalakuntzen hobekuntzaz gain, Ramonek azaldu digunez, "guretzat oso garrantzitsua da erabiltzailei harrera ona egitea, instalakuntzak txukun eta garbi egotea eta abar. Azken batean, kirola praktikatzeko orduan kalitatea ezinbesteko baldintza da eta hori da gure lana".

norberaren ezagutza bideratzen dutenak. Hona ere iritsiko da hori guztia eta horren arabera, jendearen eskaeraren arabera, kiroldegiak bere eskaintza egokitu egingo du".

Kirola osasuna da eta osasuna bizitza kalitatea. Bizitza kalitate hori lortzea da Udal Kirol Patronatuaren helburua eta asmo hori lortu eta mantentzearen lanean ari dira azken hamar urteotan. Azken batean, Ramonek esan bezala, "elgoibartarrok kirol instalakuntza ugari eta onak ditugu eta horiek baloratzen jakin behar dugu, beti ere ahal den neurrian hobetuz".

Gustura al zaude Kiroldegiko eskaintzarekin?



CONSUELO MARIN
40 urte, etxeoandrea

Kiroldegira ez naiz joaten baina Mintxetara bai, arrat-saldeetan gimnasiara joaten naiz eta oso gustura nago, bai instalakuntzekin bai eta zerbitzuarekin ere.



JOANES RODRIGUEZ
11 urte, ikaslea

Bai, ondo dao. Pistinara eta partiduak jokatzeraz juten naiz baina umientzako gauza gehixo eon biharko zian, ludoteka bat bezela baina kirola eitxeko.



IOSU ZIALZETA
21 urte, espezialista

Ba, egixa esan lehen sozio izan ginan eta oin berriz apuntatzekotan gaude, batez ere arrebategatik, ze bera askotan juten da pistinara.



VICTORIA JAUREGI
47 urte, etxeoandrea

Ni Mintxetara juten naiz eta oso ondo dauala iruditzen jata. Oin dala bi urte hasi nitzan juten eta gimnasia, aerobik... danetik itxen dou.



LOLI FREIRE
42 urte, etxeoandrea

Bai, oso gustura, ez daukat inolako kexarik. Igerilekura eta aerobik egitera joaten naiz eta azkenaldian hobekuntza asko egin direla igarri dut.



JAVI FERRERÑO
37 urte, gidaria

Buzeo ikastaroak egiten ditugunean bakarrik joaten naiz, baina orokorrean, kanpotik begira asko hobetu dela ikusten da, nahiz eta beti hobetu daitezkeen gauzak.



Serafin Freitas

1997ko azaroaren 8an
hil zen 30 urte zituela.

*Urtea dator joan zinenetik
ixilean ezin gera
izan ditugu egun hauetan
makina bat gorabehera
zure hutsunea ezin beteta
sortzen zaigu maiz galdera
besarkada bat bidaltzen dizu
kuadrila osoak batera
gure artean izango zara
behin ta betirako Sera*

ISPILUARI BEGIRA



Pilar Navarro
Garcia

GOFI arropa dendakoa

- Zer dira haurrak zuretzat?

- Umeak etorkizuna dira. Nolabaiteko goxotasuna eta maitasuna sortarazten didate.

- Noiz utzi zenion ume izateari?

- Oroitu ere ez naiz egiten ia, baina, egia esan, oraindik ume izaten jarraitzen dut.

- Haur bakoitzak bere erropa eskatzen al du?

- Bai, ume bakoitzaren izaerari erropa bat doakio.

- Mundua haurren moduan ikusten al duzu? - Gustatuko litzaidake haurren moduan mundua ikustea, baina oso zaila da hori lortzea. Hala ere, hori da nire helburua.

- Zure hautzaroa nolakoa izan zen? - Oso ona izan zen; izan ere, guztiek asko maite baininduten.

- Zer ikasi beharko genuke umeengandik?

- Akaso beren emotibitatea eta beren sintzeritatea imitatu beharko genituzke.

- Zertan zara haur baten antzekoa? - Arduragabe baten moduan aurkitzen naizenean.

- Haurren heziketa irakasleen kontua al da soilik?

- Ez. Gurasoek, irakasleek... gizarte osoak egin beharreko lana da umeen hezkuntza.

- "Gofi", marrazkietako pertsonaia, ez da handitoxoa ume izateko? - Ez, egia esan denei atsegin zaien pertsonaia da, txikienetik 16 urtera bitartekoei. Hala ere, gure "Gofi" ez da marrazkietakoa, gurea baizik.

- Helduok noiz portatzen gara "umeak baino okerrago"? - Arduragabe portatzen garenean eta elkarren arteko ikusezinak ditugunean.

- Umetan zer izan nahi zenuen? - Ez dakit, ziurrenik emakume izan nahi nuen. Beno, lehen ez geneukan aukeratzeko hainbeste modu.

- Erosleak beti al du arrazoia? - Ez dut uste erosleri beti arrazoia eman behar zaionik, baina aholku onak eman behar zaizkio beti.

- Haurrak benetan pozik bizi direla uste duzu?

- Normalean bai, baina ez beti. Hala ere, egoera hori galtzen joaten da nagusi egin ahala.

- Egungo umeek lehenagokoek baino edukazio gutxiago dutela uste duzu? - Errespetu gutxiago agertzen dute nagusiekiko, baina edukazio gehiago dute.

- Abortoa: premia ala hilketa? - Ez bata, ez bestea. Emakume bakoitzak ikusi behar du zer egin.

- Haurrak "ogi bat besapean" dakartela pentsatzen duzu? - Ez dakit ba. Niretzat behintzat bai, den-darako bederen.

Arnaitz Gorriti

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 909 53 23 83



● **Behobia-Donostia
lasterketara
joateko autobusa**

Domekan, hilak 8, Behobia-Donostia maratoi-erdia jokatu da. Udal Kirol Patronatuak autobusa antolatu du eta goizeko 8:30ean King-Kongeko zubitik aterako da. Dagoeneko 37 pertsonak eman dute izena baina 55 lagunentzako lekua dagoenez, bete artean apuntatzeko aukera izango da. Prezioa 1.200 pta.koa da eta 943 74 44 15 zenbakira dei daiteke izena emateko.

● **Filatelia
Elkartearen txangoa
bertan behera
geratu da**

Domekan, hilak 8, Bilboko Plaza Berrira antolatuta zegoen txangoa bertan behera geratu dela aditzera eman nahi du Filatelia Elkarteak. Honen ordez, datorren udaberrian Madrileko Plaza Mayor-era irteera egingo dute. Bestalde, Gabonetako loteria salgai dagoela jakinarazi nahi dute. Txartelak Elkartearen egoitzan eskuratu ahal izango dira edo Elkarteko zuzendaritzako kideren bati eskatuta.

● **Lizarrara
txangoa
Jubilatu Etxeak
antolatuta**

Datorren abenduaren 2an, Jubilatu Etxeak antolatuta, Lizarrara (Nafarroa) txangoa izango da. Goizeko 8:00etan irtenda, Lizarra bisitatu eta arratsaldean, "Aisialdia eta hirugarren adina"ri buruzko hitzaldira joatea da asmoa. Hitzaldia gaztelaniaz izango da eta gai honi buruz interesa duen pertsona orori dago zuzendua. Izena emateko lehenbailehen joan Jubilatu Etxeko zuzendaritzara.

**Elgoibarrek %6,86ko langabezia tasa du,
eskualdeko laugarren baxuena**

laz, elgoibartarren %14 inguru zegoen langabezian

Udaletxetik bidalitako informazioaren arabera, gaur egun 325 elgoibartar bakarrik daude INEMeko langabetuen zerrendan. Izan ere, biztanleria aktiboa (lan egin dezaketena) kontuan hartuta, langabezia tasa %6,86koa da Elgoibarren. Lanik ez duten pertsonen kopuruak behera egin du azken urteotan. Benetan adierazgarria da jaitsiera hau iazko datuekin konparatuta. 1997an Elgoibarko langabezia tasa %14 ingurukoa zen eta aurten 6,86raino jaitsi da. Ekonomiaren hazkundeak beraz, izan du eraginik enpleguaren sorreran. Elgoibar, Deba eskualdeko langabezia tasaren batez bestekoaren azpitik dago. Eskualdeko datuak hartuta, langabezia tasa altuena Ermuak dauka %9,29. Eibar da eskualdeko bigarren herria, %8,16rekin. Hirugarrenik Mutriku dago, %8rekin eta segidan Soraluze %7,42rekin. Bosgarren lekuan egongo litzateke Elgoibar,

%6,86ko langabezia tasarekin. Atzetik, Elgoibarkoa baino langabezia baxuagoarekin, hiru herri baino ez daude: Deba, Mallabia eta Mendaro, azken honen eskualdeko langabetu kopuru baxuena duelarik.

Herria	Langabetu kopurua	Langabezia tasa
Ermua	717	%9,29
Eibar	1.080	%8,16
Mutriku	152	%8,00
Soraluze	141	%7,42
Elgoibar	325	%6,86
Deba	89	%6,52
Mallabia	30	%5,89
Mendaro	28	%4,58
Guztira	2.562	

**San Migeleko
errekastoaren
diru-kontuak**

San Migeleko errekastoko ubidearen obregatik Udalak ordaindu behar zuen kopuru osoaren %25a bere gain hartuko du Aldundiak. Errekastoaren ubide ratze lanak martxoan inauguratu ziren eta guztira 400 milioiko kostua izan zuten. Aurrekontuaren %75a Diputazioak eta Jaurlaritzak ordainduko dute eta gainerantzako %25a Udalarik dagokio ordaintzea, 100 milioi hain zuzen. Obrek iraun zuten bitartean, hainbat gorabehera gertatu ziren, tartean obren ardura zuen Huarte enpresaren porrota. Hau guztia dela-eta, lanak amaitu zirenerako, aurrekontua igo egin zen eta ondorioz, erakunde bakoitzari gehiago ordaintzea tokatu zaio. Igoera hau dela-eta, Udalak, berari dagozkion 100 milioi horietatik %25a, Diputazioak bere gain hartzea eskatu zuen. Diputazioak pasa berri den astean eman du erantzuna eta baiezkua izan da. Argazkia inaugurazio eguneko da.



Bergara, Soraluze, Azkoitia eta Elgoibarko 150 bat mendizale eta ekologista elkartu ziren Karakaten parke eolikoaren kontra 20 kanpin denda akanpatuta egon ziren Karakaten zapatutik domekara

Aitor Zabala



Gazte Asanbladak eta Morkaiko Mendizale Elkartek bailarako beste kolektibo eta elkarte batzuekin elkarlanean antolatutako ekintzek, harrera ona izan zuten parte hartzeari dagokionean. Ekintzak, Karakate eta Irukurtzeta bitartean eraiki nahi duten parke eolikoaren

kontrakoak ziren eta joan den asteburuan burutu ziren. Zapatutik domekara bitartean 20 bat kanpin-dendak akanpada egin zuten Karakate eta Irukurtzeta bitartean. Domeka goizean, berriz, akanpatuta zeudenei Bergara, Azkoitia, Soraluze eta Elgoibartik joandako mendizale eta

ekologistak batu zitzaizkien, guztira 150 bat lagun bildu zirelarik. Eguerdi aldera eguraldiak txarrera egin zuen, nahiz eta ordura arte zintzo portatu zen.

Bestalde, domeka arratsaldean, reggae jaialdia izan zen Elgoibarko Gaztetxean. Iparraldeko 'King Mafrun-

di' eta Italiako 'Radici Nel Cemento' taldeek emanaldi polita eskaini zuten. Oraingoan, jendearen erantzuna ez zen kontzertuak merezi zuten mailara iritsi. Hala ere, bertan izan ziren 100 reggaezaleek asko disfrutatu zuten bi talde hauen jardunarekin.



Ikastolako DBHko ikasleak astronomia erakusketa ikusten

Urriaren 27an, Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako 106 ikaslek Donostiako Miramar jauregian ikusgai dagoen 'Argi urteak' izeneko astronomiari buruzko erakusketaz gozatzeko aukera izan zuten. Behin Donostian zeudela aprobetxatuz, Akuarium-eraino abiatu eta duela gutxi inauguratu dituzten instalazio berriak ikusi zituzten. Esan digutenez, "sekula ez bezala gogatu genuen Akuarium-ea".

Ikastolako 6. mailakoak BARRENen bisitan

San Bartolome ikastolako 6. mailako 33 neska-mutil BARRENen izan ziren joan den ostiralean astekaria nola egiten dugun ikusteko. Esan zigutenez, prentsa mundua ari dira lantzen eta Diario Vasco egunkaria eta inprimategi bat ikusi ondoren, herriko astekaria ezagutu nahi zuten. BARRENeko zuzendariaren azalpenak entzun ostean, nola egiten dugun lan ikusteko aukera izan zuten.



Albitxuri 'gune industrial' izendatzea onartu zen plenoan

Gauzak bide onetik joanez gero, 1999ko maiatza aldera hasiko dira obrak

Joan den ostiralean izan zen udal plenoan Albitxuri izan zen gai nagusia. Izan ere, gaur egun Albitxuri aisialdirako zona bezala dago izendatua eta gune industrial izateko proposamena onartu zen, aurrera begira bertan industrialdea sortu nahi baita. Bestalde, San Lorentzoko errekaetan uholdeak ekiditeko obrak egiteari buruz eztabaidatu zuten alderdiek eta San Anton eguna (urtarrilak 17) igandean tokatzen denez, jaia astelehenera pasatzea onartu zen.



Albitxuriko industrialdeak 190.000 m2 izango lituzke.

Hiru ordu laurden inguruko iraupena izan zuen plenoa arina eta lasaia izan zen. Izan er, gairik gehienak aho batez onartu ziren, puntu bat edo bestek aurkako iritzirik sortu zuen arren.

Albitxurik eman zion hasiera udalbatzari. Izan ere, epe laburrean aipaturiko lekuan industrialdea sortzea nahi da eta horretarako Albitxuri aisialdirako lurra izateko, industri lur izatera pasa behar da. Industrialdeak LKS enpresari ikerketa bat egin dezan eskatu dio eta, ohi denez, aldaketa jendaurrean azaldu eta gero, kontrako alegaziorik aurkezten ez bada, aldaketen arauak onartu eta 1999ko apiril/maiatza aldera hasiko lirateke obrak.

Dirudienez, gero eta enpresa gehiagok azaldu du interesa Albitxuriren inguruan. Juan Carlos Abian, PPko zinegotziak azaldu zuenez, "argi dago Elgoibarrek gune industrialak behar dituela eta Albitxurikoa ateratzen bada ere, gehiago sortu behar ditugu". HBk esan zuenez, "gune industrialak sortzearen aldekoak gara baina ez dago informaziorik. Txostenak beti iristen zaizkigu azken momentuan eta erabakiak berehala hartu behar dira. Nola liteke? Badirudi hau ere proiektu imajinarioa dela, maiatzeko hauteskundeei begira antolatutako propaganda hutsa. Aurreko legealdian Lerun-Txiki-Morteria izan

zen, gaur egun Albitxuri. Gure ustez, Sigma edukita hortik hasi beharko ginatke, Albitxuri aurreragorako utziz". EAren izenean Fermin Senosiainek hitz egin zuen, "lur industrialak behar da Elgoibarraren eta Albitxuri leku aproposa da aisialdirako haize gehiegi baitago eta jendeak ez du bertara hurreratzeko joerarik". Issak Loiolaren hitzetan, "Albitxuriko proiektua onartzeak ez du esan nahi Sigmari atean itxi dizkiogunik, gaia hor dago eta guk ere gune industrialak izatea nahi genuke. Halere, Albitxuri ez dago kontrajarrita, 190.000 m²-ri buruz ari baikara hitz egiten".

Bozketan, alderdi guztiek

baietza eman zuten HBk izan ezik eta puntuak aurrera egin zuten.

San Lorentzoko errekaetan

Bigarren gaia San Lorentzoko errekaetan uholdeak ekiditeko obrak egiteari buruzkoa izan zen. Proiektua onartu eta jendaurrean aurkeztu ondoren alegaziorik ez denez jaso, udalbatzak onartu egin zuen. Proiektuaren kostuaren %75a Eusko Jaurlaritzak ordainduko du (155 milioi pezeta) eta gainontzekoa (51 milioi) Udalarik dagokion arren, Aldundiak ordainduko du, Santa Klarako kasuan egin bezala. Alderdi guztiek aho batez onartu zuten puntu hau.

Olazarretako trenbidea

Elgoibarko hiltegiaren parean, Urruzuno auzora joateko, trenbidea pasatu behar da gaur egun. Horrek suposatzen duen arriskua kontuan izanik, trenbidea azpian, lurazpitik bidea egiteko proiektua izan zen 7. puntua. Zuloa egitea Eusko Jaurlaritzaren esku geratuko da (51 milioi) eta errepidea Udalak egingo du. Honako puntu hau ere aho batez onartu zen.

Bukatzeko, 1999. urteko San Anton eguna, (urtarrilak 17) domekan tokatzen denez, jaieguna astelehenera (urtarrilak 18) pasatzea erabaki zen.



Anchústegui s.a.
ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa: Antonio Arrillaga, 6-8 behea 83 P. K. - 20870 ELGOIBAR Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92 Faxa: 943 74 37 11	Biltegia: Olaso industrialdea Olasope, 5 20870 - ELGOIBAR Tel: 943 74 20 38 - 74 23 71
--	--



Haurrentzako arropa
Gaztetxoenentzako arropa

Giza eskubideen enparantza, 1 · ☎ 943 74 46 53

ANDER LOIOLA:

“Ikasketak amaitxutakuan, ganauakin lan itxia gustatuko jatan”

Ander Loiola, 17 urteko gaztea, San Migel auzoko Sagarraga baserrian jaio eta bertan bizi da. Zizurkilko Frai Soro ikastetxean Nekazal eta Abeltzantza Enpresen Gestioa eta Antolakuntza izeneko ikasketak egiten ari da. Izan ere, Anderrek nahiago du baserrian aritzea tailer zuloan 8 orduz torniloak egiten egotea baino. Horretarako ari da prestatzen, etorkizun laburrean baserriko gaiekin lotutako enpresaren bat sortu eta zuzentzeko.

- Baserrian jaio eta bizi zara. Izan al du eraginik ikasketak aukeratzeko orduan.

- Bai. Hasieran pentsatzen naban nekazal injinerutza itxia, baina gero, estudiatzeko gogua kendu jatan. Aukera berri hau ikusi nabanian aproposa beitzandu jatan. Bi urteko iraupena daken ikasketak dia eta, azken batian, nik ikasi nahi naban oso antzekuak. Baserriko lanak ere badakaz desbentajak baina tailarrian sartuta 8 ordu egotia txarrau dala pentsatzen dot.

Nik behintzat nahixao dot aire librian lan itxia, gainera txikitxatik ikusi doten zeozer da eta neretzat dauan gauzarik normalena.

- Zein ikasgai dituzue?

- Lelengo urtian 13 asig-natura dia: laborantza, zuhaitzen ezagutza, ganauen erreprodukziua nola kontrolau, ingurugiroa, ingelesa ere badakau, informatika...

- Igartzen al duzue alderik baserriarrak zaretenon eta ez direnen artean?

- Bai. Nere klasian 10 gera eta horietatik bi baka-rrik baserriarrak. Igartzen da gauza asko guk badakiz-kigula, etxian ikusi izan douzelako txikitatik eta bes-tientzat, kalekuentzat ixa dana berrixa da. Praktikak itxerakuan ere berdin: behi-xak zela jetsi eta holakuak gu ikusten eta itxen ohixu-ta gaude, bestiak ez.

- Gelan hain gutxi izatea ez da batere arrunta gaur egun.

- Ez. Ikasketa hauetan beti ibili izan da oso jende gitxi eta, egixa esan, hori onera-ko da, ze batez ere prakti-kak itxeko orduan diferent-zia haundixa dao jende asko edo gutxi egon. Zenbat eta jende gehixo orduan eta gauza gitxio ikusten ditxu-zu, askoz gehixo aprobet-xatzen da gitxi izanda.

- Praktika asko al dituzue?

- Aurten astian bi egunetan

izaten dia: kortan behixak jetsi eta jatan eman, maki-nak eta traktoriak montau eta desmontau eta inberna-deroko lana. Gero, bi aste barru esplotazio batera guaz praktikak itxera: inbernade-ruak ditxuen batera edo... Astebetian, ordutegi bat da-kazu eta han pasatzen dozu lanian. Etxetik urruti badao, lo ere bertan in bihar dozu.

- Etxean behiak dituzue. Jarraitzeko asmoa?


- Lelengo beste nunbait-xen probatzia gustauko ja-tan eta gero, posible bada, etxeuakin jarraitxu eta ho-betzia edo nere kontura zeo-zer montatzia. Hori bai, gehixen gustatzen jatana ganauan asuntua da, igual etxian hori dakagulako.

- Ondo prestatuta al dago ikastetxea?

- Oso ondo. Aste gutzia han pasatzen dot eta lo itxe-ko lekua ere badao. Kortia dake, ganaua, kriston maki-narixia aurreratua... Oso-oso ondo dao eta irakasliak ere onak dia, asko dakixe eta preparazio ona dake. Gainera, amaitxutakuan es-koliak berak topatzen dizu lana nunbaitxen.

- Gurasoak pozik base-riarekin jarraitzeko as-moa duzulako, ezta?

- Bai, nik usten dot poz-tu ziala esan niuenian zer nahi naban itxia.



Deba Beheko Nekazal Azokak

Soraluzen, Eibarren, Mendaron, Mutrikun, Elgoibarren eta Deban nekazal azokak izango dira azaroaren 14an hasi eta urtarrilaren 3a bitartean. DEBEMENeko gerentea den Agurtzane Etxanizek esan digunez, “nekazal azoka hauen helburua baserritarrek eurek landatutako produktuak erakutsi eta saltzea da”.

Azken urteotan badi-rudi gorakada nabarmena izan dutela azoka hauek, bai partaidetza aldetik baita ikuslegoaren aldetik ere. Izan ere, eskaintza gero eta zabalagoa da eta, besteak beste, nekazaritza ekologikoa, barazkiak, fruituak, eztiak, sagardoa, ogia eta gazta izaten dira aukeran. Bertoko, hau da, gure herrietako baserrietan bertan erein eta jasotako produktuak gero eta harrera hobea du kontsumitzaileen artean eta kalitate aldetik duten onespina kontuan izanik, gero eta gehiago dira bertoko produktuaren aldeko apostua egiten duten erosleak.

Kalitatezko produktuak

Herriz herri antolatzen diren azoka hauetan ikusgai diren produktu guztiak kalitatezko onena dute eta prezio aldetik zertxobait garestiagoak badira ere, erosleari ez omen zaio gehiegi axola, gero eta gehiago kalitatea eta bertoko produktua izatea hobesten baita kanpotik ekarritako produktu merkeagoaren aurrean. Dena dela, Agurtzaineren hitzetan, “nahiz eta jende asko ibiltzen den azoka hauetan, askotan baserritarrek kexatu egiten dira ez dutelako nahi beste saltzen. Hau da, jendea ikustera hurreratzen da, dagoen giroa bizitzera, baina gero ez dira hain erraz animatzen zerbait erostera. Hor dago erronka, lortu behar dena da jendeak

ikusteaz gain erosi ere egitea. Azken batean, erosita-koaren kalitatea probatuta-koan, erosleak errazago joko du dendan produktu hori erostera eta hori guztioi komeni zaigun zerbait da. Azken batean, hemengo baserriek iraungo badute, euren produktuak saltzeari esker izango da”.

Hau guztia kontuan izanik, azoka hauen gorakadari eutsi nahi zaio eta ez hori bakarrik, ahal den neurrian indartu eta bultzatu ere egin behar dira. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak neurri bereziak arautu nahi izan ditu gai honi ahalik eta bultzada handiena emateko eta, kalitate eta baserriaren ekonomia- ren kontuetan aurrera egin dezagun.

Euskal kulturaren bultzatzaileak

Azken batean, azoka hauek ez dira euskal produktuen erakusgarri bakarrik. Azoka edo feria hauetan gure kultura, euskal kultura argi eta garbi ikus daiteke. Jakiak ezezik, bestelako artisautza produktuak ere izaten dira aukeran eta gero eta herri gehiagotan, ohitura bihurtu da jendea egun horretan baserriarrez jantzita ateratzea. Euskal kultura bizirik mantentzeko modu bat gehiago ere bada, beraz, nekazal azoka.

HILABETEOTAN EGINGO DIREN NEKAZAL AZOKEN EGUTEGIA

Azaroak 14

III. Gaztañerre azoka, Soraluzen

Nekazaritza, abeltzantza eta eskulangintza izango dira ikusgai eta erosgai. Gainera, badi ezaugarri berezi bat. Izan ere, herriko baserriar eta artisauak bakarrik hartzen dute parte eta guztira 14 saltoki eta 6 artisau inguru elkartzen dira. Oso giro polita sortzen da.

Azaroak 30

San Andres azoka, Eibarren

Nekazal eta abeltzantza azoka izaten da. Barazki, fruitu, lore, ezti, gazta eta ogi lehiaketa izaten da.

Abenduak 5

IV. Kontzezio azoka, Mendaron

Nekazaritza, abeltzantza eta artisautza dira ikusgai eta erosgai.

Abenduak 19

Santo Toma azoka, Mutrikun

Nekazaritza azoka izaten da.

Abenduak 26

Gabonzahar azoka, Elgoibarren

Erakusketa eta salmenta izaten da eta gazta, fruitu, barazki, lore, hegazti eta gazta lehiaketa.

Aipatutako azoka guztien artean, Elgoibar-ko da arrakasta gehien duena eta zaharretarikoa. Inguru guztietatik hurreratzen da jendea eta giro benetan polita sortzen da.

Urtarrilak 3

Urte Berri azoka

Debako azoka hau “Soro feria” bezala da ezaguna. Gazta, fruitu, barazki eta hegaztien lehiaketa izaten da.



SANSONGUA baserria

1690. urtean eraiki zen Sansongua baserria, bi etxebizitzaz osatua dagoena eta San Roke auzoan kokatua. Historiaren arabera, Sansongua baserrian jaio zen Sebastian Irusta Larrañaga. Sebastianek, mutikoa zela, Arjentinara emigratu zuen eta dirua egin ondoren itzuli zenean, Gallartan minazulo bat erosi zuen. XVII. mendeko mina esplotazioen bultzatzailetariko izan zen.

Gu, gaur egun Sansonguan bizi direnekin izan gara, Eibarren jaio baina bertara ezkondu zen Begoña Lenizekin, hain zuzen ere.



Kalean lan egiten zuen Begoñak ezkondu eta Sansongua baserrira joan zenean bizitzera, “piskat gogorra in zitzatan, ze ni aurretik nahiz eta baserrixan bizi, ez genduan baserriko lanik eruaten. Dana ikasi bihar izan naban, baina gogorrena, behixak jeistia in jatan”. Hala ere, gaur egun baserritar peto-pettoa bihurtua dago Begoña, “ez nuke kanbixauko nere bizimodua. Ahizpak kalia bizi dia baina ez die inbidixarikan ematen. Guk ere badakagu etxia kalia baina ni gustura bizi naiz baserrixan, hango lasaitasuna, hango parajia, eguzki ederra udan... Hori dana aldatu? Ezta pentsatu ere ez!”. Ezkondu zirenetikez dute izan oporrik. Dena dela, Begoñaren hitzetan, “neuk ez dot hori faltan botatzen. Egixa esan, ez gera urtietan inora jun egunak pasatzera baina badakigu jaiegunetan egun pasa urtetetzen eta, gainera, eguneroko bizimodua nahiko lasaixa da eta hori asko baloratzen da”. Halere, Begoñak esan digunez, “alabak esaten dau berak baserrixan nahi dabala bizitzia, baina lana kalia. Baserriko bizimodua gogorregixa dala eta”.

Autoarekin gora eta behera

Nabari zaio Begoñari pozik bizi dela, “gainera, ez dou baserriko lan gehixegi eruaten, etxerako bihar douna eta kitxo, ze gizonak kalia itxen dau lan. Baserrixik bizitzeko lan asko ein bihar da eta guk nahixau dou trankil bizitzia, bizi ere ein bihar da eta ez egun guztia lanian, urtian 365 egun”.

Goizeko 6:00etan esnatzen da Begoña, “txapia piztu, behixak jetsi eta gobernau, etxeko jiria ein, bazkarixa

Txapan egindako bazkaria

Begoñari baserriko esnea gustatzen zaio, “nik kajako esnerik ez dot nahi. Behixak jetsi eta haren esnia bai dala edarra! Egixa da segun eta ganauak zer jaten daban nata gehixo eukitzen dabala eta esnia senduaua dala baina natural jaten badau, larrera etarata, esne fina eta ederra ematen dau”. Ez hori bakarrik, goizean goiz esnatu orduko txapa pizten du Begoñak, “nik hori bai ez neukela kanbixauko. Porruak edo babarrunak goizian goiz ipini eta goiz osua itxen lagata, hori bai dala ederra! Eta ez oingo jatekua, bi minutuan inda baina gustoripe!”.



ipini, semia eskolara eruan...”. Izan ere, baserriak badu desabantaila hori, autoarekin gora eta behera ibili beharra, alegia, “urruti geratzen da eta kaltetikan bakarrik ixotzeko ez dao ondo. Horixe daka txarra, seme-alabak 18 urte bete eta autua gidatzeko karneta etara bitxartian, norbera ibili bihar da atzera eta aurrera. Baina, zer ingo dou bada!”.

Mimoa eta kariñoa

Kariñoa jartzen du Begoñak egiten duen guztian, “ortua baldin badakazu gainian egon bihar zera, hori hola da. Baina neri asko gustatzen jata porruak landatu eta gero zelako ederrak urten diazen ikustia. Horrek poza ematen dizu! Edo udan frutarbolak frutak ematen hasten diazenian! Norberak indako lanak zelako emaitza dakan ikustia oso aberasgarria da eta horretarako gozau in bihar da lanian, kariñuakin in bihar dia gauzak, zimaurrea bota, lurra lan-

du... Mimuaikin in bihar da dana. Gainera, oin traktoria dao eta horrek asko errazten dau, ez lehen astuakin ibiltzen ginanian bezela”.

SANSONGUA

- **Auzoa:** San Roke
- **Bizilagunak:** Isidra Urkiola, 82 urte; Ramon Iriondo, 51 urte; Begoña Leniz, 43 urte; Iratxe Iriondo, 20 urte eta Haritz Iriondo, 11 urte.
- **Lur hedadura:** 12 hektarea.
- **Esplotazioa:** 2 behi eta hiru txahal eta etxerako ortua.

BIZIKLETA gainean

SAN LORENTZO-UPAIGOITXI-ATXOLIN KARAKATE-BERASETA

Distantzia: 22 km.

Denbora: 3 ordu

Zailtasuna: Handia (aldapa handiak)



*Eskuman, Berdun baserria
ikus dezakegu, ibilbidean
zehar pasa beharko duguna.*

*Irteera honetan Karakatera
joango gara eta handik behera
egingo dugu itzulerako bidea.*

■ **1** Bizikleta hartu eta, lehenik eta behin, San Lorentzora joango gara. Ermita, bolatokia eta parkea pasa eta gero, aurrera jarraituko dugu Berdun baserriaren inguruan dagoen bidegurutzera iritsi arte.

■ **2** Bidegurutzean gora jarraitu behar dugu Upai Txiki baserria pasatu arte. Handik, errebuelta hartu eta Armaitxa baserria eta Upai Goitxi pasa ondoren, gorako bideari jarraituko diogu. Orain arteko bidea asfaltozkoa izan da.

■ **3** Upai Goitxi baserri inguruan dagoen ur-deposito gaineko mendi pistatik segiko dugu ibilbidea. Orain arte 40 minutu daramatzagu bizikletan. Mendi pistatik aurrera eginez, ordu erdi pasata gutxi gorabehera, Atxolinera iritsiko gara. Halere, zenbait lekutan bidea ez da batere egokia bizikleta gainean joateko harri, hosto eta bestelakoak baitaude, beraz, hobe izango dugu bizikletatik jaitsi eta oinez egitea bide kaskarra.

■ **4** Atxolinera ailegatzen garenean bi aukera aude. Ezkerreko bidea hartuta, Hirukurutzetaraino iritsiko gara eta eskumakoa jarraituz, Karakatera. Gaurko ibilbidea Karakatetik denez, antenaraino joango gara.

■ **5** Karakatetik behera bide normaletik jaitsi-ko gara Berasetaraino. Kontuan izan aldapa behera handiak daudela eta ez dela jaitsierra arina.



Informazioa:
Andoni Etxeberria

Rita Egaña 33 urteko abokatu elgoibartarra da. 1991. urtean Ana Etxeberriarekin abokatuaren bulegoa ireki zuen eta bertan dihardute lanean ordutik. Urriaren 30ean, Gipuzkoako Abokatuaren Elkargorako hauteskundeak izan ziren eta Rita Egaña diputaturako hautagaia izan zen. Ritak eta bere taldekideek, besteak beste, probintziako abokatuak kontuan izan eta gaur egun hain baztertua dagoen euskara bultzatu nahi dute. Hauteskunde hauek ez dituzte irabazi baina itxaropentsu daude, aurrera begira lan egiteko ilusioz.

“Gipuzkoako Abokatuaren Elkargoa euskaldundu nahi dugu”

– 1991n hasi zineten. Zein gai lantzen dituzue?

- Denetik iristen zaigu: gai fiskalak, aholkularitza laborala, gai penalak, zibilak, bikoteen banaketak, alokerak... Halere, gai penaletan hilketak ez ditugu eramaten, batez ere alkoholemia kasuak izaten dira.

– Gipuzkoako Abokatuaren Elkargoan hauteskundeak izan dira.

- Bai, urriaren 30ean izan ziren. 10 diputatu, idazkari bat eta bibliotekari bat aukeratzen ziren datozen lau urteetarako. Alde batetik, kandidatura ofiziala deitzen dena dago. Hauek betidanik egon dira eta eurek daramate funtzionamendu guztia. Gertatzen dena da oso instituzionalizatua dagoela eta Donostian zentralizatzen dela, probizintzian lan egiten dugun abokatuak batere

kontuan izan gabe. Horren aurrean beste kanidatura batzuk ere aurkezten dira eta horietako batean izan naiz ni hautagai.

– Euskara bultzatzea zenuen helburuetariko bat.

- Hala da, bai. Ion Etxabe elgoibartarra ibili da hor buru-belarri. Izan ere, aspaldian asko hitz egin da epaiketarako euskaraz izateari buruz, abokatuak euskaraz defendatu eta bezeroek euskaraz deklaratzeari buruz eta abar, baina, zoritxarrez gauzak ez daude batere ondo. Gainera, orain arte, euskararen gaia defendatzen zutenak alderdi politiko konkretuekin lotzen zituen jendeak. Aurten ideologia kontuan izan gabe, inolako markarik gabeko jendea elkartu nahi izan gaituzte, besteak beste, euskara bultzatzea defendatzen duen programa honen barruan.

– Lehen aipatu duzu probintziako abokatuak nahiko baztertuak zaude-tela.

- Bai. Gipuzkoako Abokatuaren Elkargoa baino, Donostiako Abokatuaren Elkargoa dirudi. Guk, herrietako abokatuak ere kontuan izatea aldarrikatzen dugu eta hainbat gai eta ikastaro Donostian zentratu beharrean probintzian zehar ere banatzea. Horrez gain, teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak bultzatu nahi ditugu, abokatu gazteei lan mundurako sarrera erraztu eta abar eta abar.

– Zein izan dira emaitzak?

- Betikoek irabazi dute, hau da, kandidatura ofizialak. Dena dela, gure emaitzak ere nahiko onak izan dira eta jendea pozik eta itxaropentsu dago. Hasi besterik ez dugu egin, bide luzea dago oraindik. Gainera, euskarari dagokionean, gauzak asko landu eta aldatu behar dira. Hasteko, abokatu eta epaileek euskara tekniko eta espezifikoa landu beharko genuke, ez baikaude prestatuak eta itzultzailearekin lan egitean gauza asko, matiz asko galtzen dira.

– Abokatuak zaren neurrian, justizian sinesten al duzu?

- Guretzat, justizia da legea eskuan hartuta bezeroa defendatzea. Batzuetan justizia egiten da eta beste batzuetan ez. Garbi dago legeen arloan tranpa asko dagoela eta lege baten aurrean beste batek kontrakoa esan dezakeela. Horretarako dago jurisprudenzia, legeen intepretaziorako eta praktikan eman diren kasuak aztertzeko.

RITA EGAÑA

BESTEAK ESANA

“Izakeraz pertsona baikorra eta bere buruarengan segurtasuna dauka.” ANA ETXEBERRIA, lankidea.



●●● JAIOTAKOAK ●●●

- Ekaitz Atxa Nogero (Urriak 6)
- Egoitz Otaegi Sarriugarte (Urriak 13)
- Iker Odria Tudanca (Urriak 14)
- Josu Figueiredo Beceiro (Urriak 15)
- Maitane Gallastegi Zulaika (Urriak 16)
- Nora Rey Nogales (Urriak 18)
- Leire Astigarraga Iriondo (Urriak 20)
- Alex Osoro Saez (Urriak 21)
- Ane Zuñiga Gurrutxaga (Urriak 21)
- Miren Konde Barrenetxea (Urriak 22)
- Ane Martínez Ramos (Urriak 22)
- Aitor Gómez Daquinta (Urriak 23)
- Lucia Garía Alarcón (Urriak 23)
- Irene Mugika Aranberri (Urriak 27)

●●● EZKONDUTAKOAK ●●●

- Marcos Acosta eta Kristina Telleria (Urriak 10)
- Roberto Kerexeta eta Arantzazu Zabala (Urriak 17)
- Jose Miguel Etxeberria eta Sagrario Rodriguez (Urriak 17)
- Iñaki Iriondo eta Silvia Gabiola (Urriak 24)
- Isaak Bergaretxe eta Mireia Zabala (Urriak 24)
- Pedro Iparragirre eta Estitxu Gorostiza (Urriak 31)

●●● HILDAKOAK ●●●

- Luisa Bereziartua Aranberri, 88 urte (Urriak 8)
- Manuel Rey García, 80 urte (Urriak 8)
- M. Juana Garate Epelde, 82 urte (Urriak 8)
- Dolores Astigarraga Zabala, 85 urte (Urriak 9)
- Felipe Igartua Sagastizabal, 90 urte (Urriak 11)
- Valerio Esnaola Arakistain, 86 urte (Urriak 14)
- Emilia Etxaniz Xemein, 78 urte (Urriak 14)

Tiburtzio Beristain Berriozabal

(1904-1953)



- 1904ko apirilaren 14an jaio zen San Bartolome kalean. Bost anai-arreba ziren, gazteena bera.
- Oso gazte ausarta zen, soltea eta trebea kirolerako. Esku pilotan ederki jokatzeko zuten. 'Jan Baietz' kuadrila ezaguneko kidea zen.
- Haundi futbol taldeko jokalaria zela, laster eraman zuten Deportivo Alaves-era, Real Sociedad-era beranduago eta Real Unión-era azkenik. Oso urrutira iritsi zen Tiburtzio. Real Madrid-eko atezaina zen R. Zamoraren ordezkoa izan zen nazioarteko partidu bat baino gehigotan. Beti izan zen jokalaria ona.
- Rufina Urretarekin ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituzten. San Frantzisko kalean bizi izan ziren.
- 1936ko gerratean Sevillako 'Batallón de trabajadores' en lan egitea tokatu zitzaion. Elgoibarrera itzulitakoan lan mordoa egin behar izan zuen lantegia martxan jartzeko. Erremintak egiten zituen eta soplelista lanak ere bai.
- Elgoibartar hau, urte dexenterekin, berriz hasi zen jokatzeko atezain moduan eta C. D. Elgoibarko entrenatzailea ere izan zen.
- Oso maitatua zen herrian. Geroago garraiolari lanean ibili zen eta azkenik, 'Gabilondo y Cía.' eta Sigman. Tartean familiak taberna izan zuen gaur egun 'Polleria Errezabal' dagoen tokian. Tiburtziok, gustu handiarekin, kitarra joaz, askotan abesten zuen lagun artean, tarte onak pasatzen zituztelarik.
- Elgoibartar popular hau gizon apala, atsegina eta borondatetsua zen.
- Oraindik sasoi aparta zuela, 1953ko ekainaren 21ean hil zen, 49 urterekin.

Juanito Gorostiza

San Franzisko 12-14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta

San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA

★ MULTIKOPISTAK

★ FOTOKOPIADORAK

★ PLANOEN BIRREGILEAK

★ ERLOJU INDUSTRIALAK

★ MARRAZKETA MATERIALA

★ INFORMATIKA

★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar



Argazki hau **Andres Al-berdik** lagatakoa da. Bertan agertzen direnak San Bartolome ikastolako zenbait irakasle eta ikasle dira 1975 urteko udaberrian. Garai hartan Ikastolako ikasleen gelak han eta hemen sakabanatuta zeuden: Goitin, Loriton, Konpor-

tan,.. Erretratu hau Konportan dago aterata (Santa Ana kale-aren amaieran).

Irakasleak honako hauek dira ezkerretik hasita: **Andres Al-berdi, Kontxi Prado, Antton Abasolo, Jose Mari Larrañaga** eta **Alfonso Guilló**. Leihoan dauden umeak **Xabier Artola** eta **Sabin Uriguen** dira. Alfonsoren atzean agertzen dena ezin izan dugu identifikatu. Aldameneko neskatila **Virginia Azpiazu** da.



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01



"Kirol agresiboa delako gustatzen zait taekwondo"



Alex Calvo

- **Adina:** 17 urte
- **Gogoko kirol edo zaletasunik?** Motorra, surfa, bizikletan ibiltzea...
- **Zein beste kirolengatik lagako zenuke taekwondo?** Ez dago taekwondo beste gustatzen zaidan kirolik.
- **Altura:** 1,91 m
- **Pisua:** 83 kg

- **Gipuzkoako Taekwondo Txapelketan bigarren geratu zinen. Zer moduz?** - Hasieran nahiko urduri nengoen estreinakoz txapelketa batean parte hartzen nuelako, eta ez nekielako noren aurka borrokatu beharko nuen. Promesa kategorian hartu nuen parte 80 kg-tik gorakoetan. Azkenean kontzentratzea lortu nuen eta gauzak ez ziren gaizki atera.

- **Maila altua zegoen?** - Gertatzen dena da 80 kilotik gorako kategoria zela eta pisu hori baino gehiago duen edozein sartzen dela. Honela, 110 kiloko arerioa toka dakizuke, edo zu baino kontrario askoz altuagoa, edo zurea baino gerriko hobe duena, edo zu baino beterranoago bat,...

- **Zer nolako arerioak tokatu zitzaizkizun?** - Lehenengo ni baino altuagoa zen baten kontra borrokatu nuen eta emaitza 1 eta 1eko berdinketa izan zen. Gero 112 kiloko baten aurka borrokatu nuen eta irabazi egin nion, ostikada guztiak hanketan eman zizkidalako eta hori ez da balekoa. Beraz, ez zuen punturik egitea lortu. Hala ere, hankak eta bernak txikituta utzi zizkidan eta horregatik berdinketa desegiteko borrokan parte ez hartzea erabaki nuen.

- **Sekulako egurra ematen diozue elkarri, beraz.** - Bai, kolpeak eman eta jaso ere egiten dira. Askotan hartutakoak emandakoak baino gehiago izaten dira.

- **Zenbat urte daramatzazu kirol**

hau egiten? - Duela bi urte hasi nintzen eta gerriko naranja daukat. Gerrikoak judoan bezala dira. Zuria da hasi-berriena eta ondoren datoz horia, naranja, berdea, urdina, marroia eta azkenik, beltza.

- **Judoarekin zein ezberdintasun dauka?** - Biak dira kirol olimpikoak baina taekwondo duela gutxi errekonozitu dute. Teknikoki ezberdinak dira. Judoan arerioa heldu eta lurrera botatzea da helburua baina taekwondo ostikadak eta ukabildak ematean oinarritzen da. Berna, hanka eta buruan ezin daiteke ostikadarik ez ukabildarik eman. Gainera, babesgarriak ermaten ditugu berna, beso, hanka-arte eta buruan. Kirol agresiboa da, gogorra, baina horregatik gustatzen zait.

- **Hain kirol gogorra izanik ederki sufrituko duzue.** - Bai, borrokaldi amaieran bernak bultoz beteta izatea da normalena. Oinetako bi behatz, adibidez, erabat txikituta dauzkat eta orkatilean zaintiratu daukat. Hala ere, txarrena hanka-tarteko kolpea da.

- **Defentsa pertsonalak ba al du taekwondoarekin zerikusirik?** - Defentsa pertsonala taekwondoaren arlo bat da eta entrenamenduetan lantzen dugu. Hala ere, bizitza errealean, eraso baten aurrean, oso zaila da defentsa pertsonaleko teknikak erabiltzea, oso konplexuak baitira. Institiboki atera beharko litzaizuke eta hori pelikuletan bakarrik gertatzen da.

ESKOLARTEKO KIROLAK

EMAITZAK (urriak 31, 3. jardunaldia)

FUTBOLA

- **Infantil mutilak** ■
Insti A 10 - Deba 2
Ikastola 4 - Insti B 2
Pilar A 1 - Pilar B 4
- **Infantil neskek** ■
Pilar B 12 - Ikastola A 0
Pilar A 11 - Mutriku 0
Ikastola E 6 - Ikastola B 1
Ikastola D 7 - Ikastola C 1

SASKIBALOA

- **Benjamin mutilak** ■
Mendaro A 2 - Pilar B 34
Pilar A 8 - Ikastola A 4
Herri Eskola A 2 - Ikastola C 42
Herri Eskola B 34 - Ikastola B 0

- **Benjamin neskek** ■
Ikastola C 24 - Ikastola A 4
Pilar A 4 - Ikastola B 6

ESKUBALOA

- **Alebin mutilak** ■
Mendaro A 3 - Pilar A 1
Pilar B 2 - Mendaro B 6
Deba Urdinak 8 - Jauja A 19
Deba Gorriak 9 - Ikastola 10
Herri Eskola 18 - Ikastola C 3
Deba Berdeak 2 - Ikastola B 12
- **Alebin neskek** ■
Ikastola B 0 - Pilar B 7
Ikastola A 1 - Jauja E 4
Deba Horiak 8 - Jauja D 1
Pilar A 1 - Ikastola C 6

ESKOLARTEKO KIROLAK

AGENDA (azaroak 7, 4. jardunaldia)

FUTBOLA (Mintxetan)

- **Infantil mutilak** ■
11:00 Pilar A - Deba
11:45 Pilar B - Insti B
12:30 Insti A - Ikastola
- **Infantil neskek** ■
10:00 Mutriku - Ikastola D
10:45 Pilar A - Insti
11:30 Ikastola E - Ikastola A
12:15 Ikastola B - Ikastola C

SASKIBALOA (Herri Eskolan)

- **Benjamin mutilak** ■
10:00 Mendaro A - Ikastola A
11:00 Pilar A - Herri Eskola B
11:30 Pilar B - Herri Eskola A
12:30 Ikastola C - Ikastola B

- **Benjamin neskek** ■
10:30 Ikastola A - Pilar A
12:00 Pilar B - Ikastola C

ESKUBALOA (Kiroldegian)

- **Alebin mutilak** ■
11:15 Mendaro B - Ikastola C
- **Alebin neskek** ■
9:00 Jauja E - Pilar B
9:45 Pilar A - Jauja D
10:30 Deba Horiak - Ikastola A
12:00 Ikastola B - Ikastola C

ESKUBALOA (Ikastolan)

- **Alebin mutilak** ■
9:00 Jauja B - Ikastola A
9:45 Pilar A - Jauja A
10:30 Mendaro A - Deba Berdeak
11:15 Ikastola B - Deba Urdinak
12:00 Pilar B - Deba Gorriak

Federazio Kopako finalerdietarako sailkatu da Haundi

Norgehigoka datorren asteazkenean, hilak 11, izango da etxetik kanpo

Pasa den asteartean, hilak 3, Federazio Kopako partidu garrantzitsua jokatu zuen Haundik Mintxetan. Irungo Real Unión taldearen aurkako partidua zen eta 2na berdindu zuten. Federazio Kopan 8 ekipo ari dira parte hartzen, bi taldetan banatuta. Astearteko partiduen ostean, Haundi bere taldeko bigarren geratu da, Real Unión-en atzetik. Talde bakoitzeko lehenengo bi ekipoak finalerdietarako sailkatzen dira. Datorren asteazkenean, finalerdietako partidua jokatuko du Haundik kanpoan, beste taldeko irabazlearen aurka. Partidu hau irabazten duenak, beste finalerdia irabaztean duenaren kontra jokatuko du finala (finala bi partidutara da: etxean bat eta kanpoan bestea). Gogoratu egin behar da iaz Haundi izan zela Federazio Kopako txapeliduna.



Egoitz Morak urrezko domina eskuratu du Espainiako sektoreko txapelketan

Ibai Kirol Elkarteko Egoitz Mora judokak Espainiako sektoreko txapelketan parte hartu zuen urriaren 25ean Euskadiko selekzioko kide bezala. Castejón (Nafarroa) herrian izan zen txapelketa eta Egoitzek 18 urtez azpiko kategorian lehiatu zuen. Egoitzek estreinakoz hartu zuen parte kategorian honetan, berak 16 urte baino ez ditu eta. Sektore honetan Aragoa, Nafarroa, Cantabria, Errioxa eta Euskadiko txapelketak hartzen dute parte eta pisu bakoitzeko finalistak Espainiako txapelketarako sailkatzen dira. Txapelketa hau azaroaren 7 eta 8an izango da Madrilan. Egoitzek erraz irabazi zuen 90 kg azpiko mailan eta urrezko domina lortzeaz gain, Espainiako txapelketako finalerako txartela ere eskuratu zuen. Honako honekin hirugarren aldiz arituko da elgoibartar judoka Espainiako txapelketan.



EMAITZAK

Futbola

Haundi 2 - Torrelavega 0
 Ondarroa 2 - Elgoibar 2 (1. erreg.)
 Eibartarrak 1 - Pedrusko 2 (2. erreg.)
 Santutxu 5 - Elgoibar 0 (L. N. jub.)
 Elgoibar 5 - Zarautz 2 (1. jub.)
 Elgoibar 7 - Almen 0 (Kadeteak)
 Elgoibar 5 - Bergara 1 (Infan.)
 Almen 0 - Elgoibar 7 (Neskak)
 Haundi 2 - Real Unión 2 (Kopa)

Areto futbola

Iraurgi 6 - Zur Ta Lur Elg. 2 (1. maila)
 Bar Parisien 2 - Zur Ta Lur 5 (Auton.)

Futbitoa

PSK 3 - Lojantzi 4
 Aide Globun 3 - Berrogei Duro 1
 Aizkorak Mendibil 3 - Kunta Kinte 4
 Los Herminios 0 - S. Braga 5
 Los Peñaskos 7 - Menisco 2

Eskubalola

IMH Elgoibar 18 - Urola 19 (Senior mut.)
 Muskiz 12 - IMS Elgoibar 22 (Senior nes.)

Idarraga Kafeak 2. sarla

HAUNDIko jokalaria erregularrena 98/99
 JOKALARIA PUNTUAK

1- Eneko	19
2- Beitia	18
3- Iker Leonardo	15
4- Aitor Trebiño	13
5- Elkoro	9
6- G. Leonardo	8
7- Igor	7
8- Txasio	7
9- Madina	7
10- Muguruza	6
11- Caro	5
12- Loren	5
13- Diaz	4

AGENDA

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 6
 22:10 Zur Ta Lur Elg. - Limp. Antoñana (1. maila)
 23:10 Zur Ta Lur Elg. - Puer. Pasaia (Auton.)

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 7
 13:15 Elgoibar - Cruces (L. N. jub.)
 15:30 Elgoibar - Zumaiako (1. erreg.)
 17:15 Pedrusko - Hamaika Bat 2.erreg.)
 19:00 Elgoibar - Antoniano (Neskak)
 Igandea, 8
 11:30 Elgoibar - Aizkorri (Inf.)

Eskubalola, Kiroldegian

Larunbata, 7
 16:00 Tecnomeca Elg. - Trapaga (Kad. mut.)
 17:30 Pneumax Elg. - Trapaga (Jub. mut.)
 19:00 IMS Elgoibar - Urdaibai (Senior nes.)


Pilota, Ikastolako frontoian

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ostirala, 6
 21:30 Lagunak - Azpeitia (Jub.)
 22:15 Lagunak - Soraluze (Juniorrak)
 23:15 Lagunak - Elgeta (Seniorrak)

Futbitoa, Kiroldegian

Igandea, 8
 9:00 S. Braga - Los Peñaskos
 10:00 Kunta Kinte - Los Herminios
 11:00 PSK - Aide Globun
 12:00 Berrogei Duro - Aizkorak Mendibil
 13:00 Lojantzi - Menisco



Mundu liluragarri bat

Gure artean argitaratua daukagu jada Ibaizabal argitaletxeko Literatura Unibertsalaren sailean H. C. Andersen. Egile danimarkarraren 19 narrazio bildurik ditugu "Hemeretzi ipuin" izenburuko liburu honetan. Andersenek, irudime-naren bidez, mundu liluragarri batera, fantasiaren erreinura garamatza orrialdeetan zehar. Liburu hau irakurtzea mundu magiko batera bidaiatzea da. Fantasiatzko istorio hauek irakurlea txunditu, liluratu egiten dute. Hemeretzi kontakizun hauen artean dago jakina, seguraski idazle eskandinabiarraren sormen ospetsuena, "Ahatekume itsusia" deiturikoa, mundu osoko literaturazaleen artean ezaguna dena. Izan ere, hori bezalako lanen bidez bereganatu du Andersenek munduko literaturan duen izena eta lekua. Hemeretzi lan hauek egilearen irudimen apartaren erakusgarri dira. Narraziotan, egilearen antzerkiarekiko lilura islatzen da, baina batez ere fantasiarekikoa. Idazle jeinuak harritu baino harrituago uzten gaitu istorioz istorio. Errelatoak maisuki kontatuak daude, bakoitzak behar duen kontaketa du. Horrela, hemen bildutakoek klasikoak egiten dituen xarma eta handitasuna dute.

Jon Eugi

Gabonzaharreko 'Plazara dantzara' dantza saioa prestatzeko ikastaroa martxan dago

Dantzari ohi guztiek parte har dezaten nahi dute antolatzaileek

A benduaren 26an, Gabonzahar ferrian izango den 'Plazara Dantzara' erromerian parte hartzeko ikastaroa martxan dago. Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrenako ekitaldiei amaiera berezia emateko asmotan, Elgoibarko dantzari ohi guztiek ikastaroan parte har dezaten dei berezia zabaldu nahi dute antolatzaileek. Gonbita herritar guztiei eta bereziki, Elorri, Elgoibarko Izarra eta Haritz Dantzari Taldean ibilitakoei luzatu nahi zaie. Ikastaroan 40 bat lagun ari dira eta tartean, ezer ez dakitenak eta zenbait dantza ezagutzen dituztenak daude, hortaz, nahi duten guztiek ikasteko aukera dutela azpimarratu nahi dute. Gabonzahar egunaren bueltan 'Plazara Dantzara' saioaz aparte, bazkaria antolatu dute joan nahi duten guztientzat. Bazkaria Ikastolako frontoian izango da. Arratsalderako 'Plazara Dantzara'



40 lagun ari dira zapatuero entsaiatzen
Lourdes Odriozola eta Josu Mujikaren esanetara.

erromeria prestatu dute. Printziopioz Plazan egiteko asmoa dago baina euria izango baltiz, Kiroldegira aldatuko litzateke. Ikastaroan parte hartzen dutenek ez dute derrigorrez 'Plazara Dantzara' saioan dantza egin behar. Gogoraraztea komeni da entsaioak larunbatero goizeko 11:00etan direla eta zazpi entsaio baino ez direla geratzen.

Gurutze Gorriko Astialdi Taldeko haurren erakusketa hilaren 11ra arte egongo da irekita

Asteartean, hilak 3, ireki zen Gurutze Gorriko Astialdi Taldeak Kultur Etxean prestatutako erakusketa. Urtean zehar Astialdi Taldean aritzen diren haurren lanak daude ikusgai. 25 bat haurren eskulan, marrazki, margo etab. ikus daitezke, bakoitzak bere ikus-



puntutik, era guztietako ideiak eta gaiak lantzen dituztelarik. Erakusketa inauguratu zen egunean, Gurutze Gorriko zenbait begirale topatu genituen bertan. Esan zigutenez, Gurutze Gorriko Astialdi Taldea 12 bat begiralek osatzen dute eta urtean zehar makina bat ekintza antolatzen dituzte herriko haurrek ahalik eta ondoen pasa dezaten.

A i n a r a



U r k i d i

UNIBERTSITATEAK NOTA

Alcala	(7,56)
Alicante	(7,51)
Bartzelonako auton.	(7,01)
Madrileko auton.	(7,97)
Bartzelona	(7,39)
Cadiz	(6,93)
Cantabria	(6,72)
Konplutensea:	
-San Pablo	(7,40)
-Medikuntza	(7,71)
Cordoba	(7,12)
Badajoz	(7,52)
Granada	(7,47)
LLeida	(7,34)
Malaga	(6,71)
EHU	(7,52)
Salamanca	(7,3)
S.de Compostela	(7,4)
Sevilla	(7,15)
Huesca	(6,87)
Zaragoza	(7,16)

Medikuntza

1 - Txikitan medikua izan nahi zenuela esaten al zenuen?

- Bai. 6. mailan nauanian esaten naban medikuntza nahi nabala itxia eta hola amaitxu dot. Oin, karrerako 3. mailan nabil.

2 - Pentsatua al daukazu zein espezialitate egin nahi zenukeen?

- Betidanik gustau izan jata zirujia baina zenbat eta gehixo jakin dudak hasten dia eta beste gauza interesante asko ere badaudela konturatzen zera. Hala ere, printzipioz zirujia eta zainketa intentsiboak dira gehixen gustatzen jatazenak.

3 - Zein erako ikasketak dira?

- Asignatura asko daude eta batzuk beste batzuk baino gogorruak dia eta gehixo ikasi bihar da. Lelengo mailan anatomia, bigarren mailan fisiologia eta hirugarren mailan patologia dia asignatura zailenak neretzat. Lelengo maila da neretzat zatarrena eta palo gehixen ematen dabena baina, beste alde batetik, anatomia oso asignatura politxa da.

4 - Klaseak euskaraz al dira?

- Lelengo mailan dana da euskeraz, bigarren eta hirugarren mailan asignatura batzuk eta hortik aurrera

momentuz dana erderaz.

5 - Praktikak ere badituzue.

- Bai. Berez praktikak ospitalian azkenengo urtietan izaten dia baina lelengo mailetan laboratorixuan izaten dia.

6 - Hildakoeekin, ezta?

- Bai. Hasieran inpresio piska bat itxen dau, baina batez ere, izara azpitan hildakua dauala imajinatziak itxen dau inpresiuua, ze gero, ikusten dozunian eta praktikekin hasten zeranian ez zera horretaz konturatzen. Gainera, pasada bat da ikustia gorputza zelakua dan.

7 - Eta zer da medikuntzatik gehien gustatzen zaizuna? Gaixotasunen jatorria ezagutzea edo pertsonak sendatzea?

- Bixak. Politxa da gaixotasunak nundik datozen jakitzia eta baitxa jendia sendatzeko kapaza izatia ere.

8 - Eguneroko ikasten al duzu etxean?

- Egunero ezinezkua da, ze batzutan etxera ailegau orduko arratsaldeko 20:30ak dira eta ez dakazu ezertarako gogorik. Nik bizimodu normala itxen dot, kalera uten lagunekin, biolina jo, koruan nabil... Medikuntza ez da jendiak pentsatzen daban bezain gogorra. Luzia da eta pazientziakin hartu bihar da.

Gaiak:

Epidemiologia orokorra eta osasun demografia, giza elikadura, giza organismo normalaren morfologia, egitura eta funtzioak, osasun eta gaixotasun egoeren oinarri psikologikoak eta abar.

Lan merkatua:

Lan merkatua: Arloaren arabera zailagoa edo errazagoa da lana topatzea. Herri txikieta-ko mediku izatea errazagoa da hirietako ospitaleetako baina. Merkatu Bateratuan sartzean, Europar Komunitateak Medikuntza Lizenziatura homologatzeko espezialitateko beste bi urte egitea exigitzen du, hau da, ohiko 6 urteak gehi beste bi.

Irteerak:

Klinika, ospitale, erresidentzia, kontsulta partikularrak...



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . . . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
 Gurutze Gorria . . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
 Odol Emaileak . . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . . 943 742158
 Mendaroko Udala 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . . . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español . . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki irratia . . . 943 74 34 74

8

igandea

8:30 AUTOBUSA
BEHOBIA-DONOSTIAAra

Irteera King-Kongeko zubitik
 Antolatzailea:
 Udal Kirol Patronatua

19:30-22:15 ZINEA
 "Salvar al soldado Ryan"

13

ostirala

19:00 MARGO
ERAKUSKETA

Egilea: Gemma Monreal
 Kultur Etxean
 Hilaren 29ra arte

22:30 'KULTUR
ERROTA'
EGITASMOAREN
1. SAIOA

Partehartzaileak: 'Bi luma' eta 'Patxi kaleko'
 Kultur Etxeko sotoan
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Izarra

22:15 ZINEA
 "Los vengadores"

6

ostirala

22:30 MUSIKA eta
DANTZA SAIOA
 Izenburua: 'Tangoneando'
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea: Haritz
 Dantzari Taldea

23:00 'BOLIVIA
BIZIKLETAZ'
DIPOSITIBA
EMANALDIA

Gaztetxean
 Antolatzailea:
 Gazte Asanblada

9

astelehena

22:15 ZINEA
 "Salvar al soldado Ryan"

12

osteguna

22:15 ZINE KLUBA
 "Rossini"
 Antolatzailea: Ongarri
 Zine Kluba

7

larunbata

19:30-22:15 ZINEA
 "Salvar al soldado Ryan"

ZINEA



Zuzendaria: Steven Spielberg.
Antzezleak: Tom Hanks,
Edward Burns, Matt Damon.

Salvar al soldado Ryan

II. Mundu Gerratearen amaieran, aliatuen tropak itsasontzietan heltzen dira Normandiako kostaldera (Frantzia). Soldaduen aurpegiak beldurra eta tentsioa erakusten dute, inork ez baitaki zer gertatuko zaien. Etsaien eskuetan dagoen lur eremua pasatu ondoren, agindu berezi bat iristen da. James Ryan soldadua bizirik topatu behar dute, bere hiru anaiak gerran hil baitira. Etxera eraman behar dute bueltan, EEBBetako legek dioten bezala.

ONGARRI ZINE KLUBA Azaroko pelikulak

ONGARRI Zine Klubak azarorako prestatu dituen pelikulak hiru dira: hilaren 12an, osteguna, Helmut Dietl zuzendari alemaniarren 'Rossini' filmea emango da. Komedia 'beltza'ren ildotik, Alemanian sekulako arrakasta izan du pelikula honek. 97an, pelikula eta zuzendari onenari ematen zaizkion sariak irabazi zituen eta 'Ernst Lubitsch' saria ere jaso zuen. Hurrengo ostegun eta ostiralean, hilak 19 eta 20, Holandan egindako filmea eskainiko dute. 'Character' izenburua du eta iazko Oscar sarietan Armendarizen 'Secretos del Corazón' pelikulari atzerriko filme onenaren oskarra ostu zion. Mende hasieran kokatzen den istorio honek aita eta seme baten arteko harreman gatazkatsuak kontatzen ditu. Azkenik, hilaren 26 eta 27an, Valladolid-eko zinemaldian bi sari jaso zituen 'Affliction' filme amerikarra ikusi ahal izango da. Nick Nolte da protagonista eta aktore onenak jasotzen duen saria irabazi zuen. Argazkilaritza atalean ere saritutako pelikula da. Amerikako herri txiki batean sheriff baten inguruko gorabeherak kontatzen dira. Emanaldi guztiak Herriko Antzokian izango dira gaueko 22:15etik aurrera.

● "Bolivia bizikletaz" diapositiba emanaldia Gaztetxean

Joan den uztaillean Alberto Zelaia eta Sugar Etxaniz elgoibartarrak Bolivia aldera abiatu ziren alderik alde herrialde hau ezagutzeko asmotan. Hilabete pasa ibili ziren bertako desertu, baso, mendi, hiri eta herri galduetan. Gaur, ostirala (hilak 6), Bolivian ikusi eta jasotakoak kontatuko dituzte Gaztetxean bi abenturazale elgoibartar hauek: hango bizimodua, geografia, paisaiak, leku historikoak eta bizi izandako pasadizoak, guztiak diapositibetan jasoak. Emanaldia gaueko 23:00etan izango da Gaztetxean.



● "Kultur Errota" programaren 1. emanaldia

Elgoibarko Izarrak eta Euskara Elkarteen Topaguneak antolatuta, azaroaren 13an (ostirala) 'Kultur Errota' egitasmoa jarriko da martxan Elgoibarren. Helburua formato txikiko kultur ikuskizunak eskaintzea da, kultur gile profesionalak, amateurrek eta herrietan sortzen direnak tartekatuz. Hasiera emateko, azaroaren 13an 'Patxi kaleko' folk taldea (Aitor Furundarena, Hurbil Artola, etab.) eta 'Bi luma' (poesia eta musika) izango dira. Kultur Etxeko sotoan izango da, gaueko 22:30ean. 500 pta.ko sarrerekin kafea, pastak eta kopatxoren bat ere eskainiko dira.

● 'Tangoneando' ikuskizuna Herriko Antzokian

Haritz Dantzari taldearen 25. urteurrena ospatzeko, tango ikuskizun berezia izango da gaur, hilak 6 (ostirala), Herriko Antzokian. Gaueko 22:30ean hasita, Euskal Herriko bost musikaririk, Gardel mitikoaren kantak eta tango modernoaren erakusgarri den Astor Piazzolaren piezak eskainiko dituzte. Lagungarri modura, zenbait abesti entzun bitartean, Irungo bi dantzari tangoak dantzatuko dituzte.

T R A N D A R R

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
7	Yudego	Zabaleta
8	Yudego	Zabaleta
9	Bidasolo	Bidasolo
10	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
11	Anduaga	Anduaga
12	Yudego	Yudego
13	Zabaleta	Zabaleta

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
ANDUAGA: Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA
8 igandea Idarraga

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Helmut Dietl.
 Antzezleak: Goetz George,
 Mario Adorf, Heiner Lauferbach.

Rossini (Alemania, 1997)

Paolo Rossini jatetxe inportante bateko jabea da. Hiriko fauna artistiko eta bohemioaren konfidantza irabazten jakin du. Bere bezeroen artean 'Loreley' izenburuko best-seller-a idazten dabilen Jacob idazlea dago. Idazlearen asmoa liburua pantailaratzea da, zuzendari, produktore eta bankeroen laguntzarekin. Guztiak jattetxean elkartzen dira aktorea protagonista nor izango den erabakitzeko. Une horretan 'Edurne-zuri' ile-hori ederra agert-

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Igeltseroa behar da esperientzia-ekin. ☎ 943 12 08 63 909 71 05 91
- ◆ Neska behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. ☎ 943 74 38 83 (19:00etatik aurrera)
- ◆ Emakume euskalduna behar da etxekolanak egin eta 2 ume zaintzeko. ☎ 943 74 42 43
- ◆ Pertsona gaztea behar da informatikako tekniko bezala lan egiteko. Esperientzia baloratuko da. Interesatuak idatzi 8 postakutxara, Elgoibar.
- ◆ Neska behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Ahal bada, euskalduna. ☎ 943 74 45 87
- ◆ Mutila behar da mezulari lana egiteko. Gida baimenarekin. ☎ 943 74 40 54 (goizez)

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Administrari eta komertzio ikasketak dituen neska lanerako eskaintzen da. ☎ 943 75 50 45
- ◆ Neska eskaintzen da etxeko lanak egin eta umeak edo zaharrak zaintzeko ☎ 943 75 50 45
- ◆ Bi gazte eskaintzen dira propaganda banatzeko ☎ 943 74 13 07 (arratsaldez)
- ◆ 38 urteko neska eskaintzen da gaixoak zaintzeko, bai ospitalean baita etxean gauz ere. ☎ 943 74 31 75 (Carmen, goizez).
- ◆ Klinikak Laguntzailea eskaintzen da gaixoak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informazioak ditut. ☎ 943 74 04 86 (Rosa)
- ◆ Neska eskaintzen da haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo tabernan aritzeko. Esperientziarekin. ☎ 910 685 295
- ◆ Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Esperientziarekin. ☎ 943 17 19 13

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Amazona Aestiva lorua saltzen da. 97 anilla. Arra. ☎ 929 43 81 54 (Xabier)
- ◆ Lokal komertziala saltzen da Urasandi Sean. 27 m2 ditu. ☎ 943 75 12 76
- ◆ Larousse enziklopedia eta bi suplemento saltzen ditut. ☎ 943 19 50 98 (Esther. 20:00-21:00)

- ◆ Super Nintendo kotsola saltzen da. Bi mando eta sei jolas ditu. ☎ 943 74 22 75 (Iñigo)
 - ◆ Bodyboard bat saltzen da, Wave Rebel. Aletak Rip Curl eta 2x3ko traje motza. Merke. ☎ 943 74 38 76 (Ivan)
 - ◆ Land Rover motza saltzen dut. Egoera onean eta merke. ☎ 943 74 06 88
 - ◆ Bideo-kotsola saltzen da. Super Nintendo, bi mandu eta zazpi jolasekin. ☎ 943 74 41 47
 - ◆ Gazteen logelarako altzariak salgai, merke. ☎ 943 74 20 41
 - ◆ Ford Orion 1.600 GHIA zuria saltzen da. 250.000 pta. Interesatuak galdetu Merkatu Plazako 22. postuan. (Ana)
 - ◆ Kutxa forma duen ohe tolesgarria saltzen da. Piniuren egurrez egina. Oso polita. ☎ 943 74 40 85
 - ◆ Bi anplifikadore saltzen ditut. Bata baxuarentzat eta bestea kitarrarentzat. Prezio ona. ☎ 943 74 10 32
- ### ◆ EROSI ◆
- ◆ Trikitixa bat erosiko nuke. 3 edo 4 ahotsekoa. ☎ 943 75 61 83
 - ◆ Egoera onean dagoen bigarren eskuko pianoa erosiko nuke. ☎ 943 76 56 78 (M. Jesus. Goizez)

Partikularrak

- ◆ Latineko partikularrak ematen ditut. ☎ 943 75 51 04 (Ana)
- ◆ Kimika eta matematikako klase partikularrak hartuko nituzke, talde txikietan. ☎ 943 74 20 85 / 74 24 23
- ◆ Mekanika eta elektroteknikiako partikularrak emateko norbait behar da. ☎ 943 74 45 75 (arratsaldez)
- ◆ Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 17 96
- ◆ Dibujo teknikoko klaseak ematen ditut. ☎ 943 74 43 98 (Iñaki. Gauz deitu)

Garajeak

- ◆ Marradun garajea alokatzen da Urasandin, Kalamua kalean. ☎ 943 74 13 82
- ◆ Garajea alokatzen da, San Roke Sean. ☎ 943 74 11 61

Etxebizitzak

- ◆ Pisua alokatzen da Ubitarten. ☎ 943 74 03 41
- ◆ Apartamentua saltzen da Ezcaray-n. ☎ 944 95 05 37 (Charo edo Javi)
- ◆ Osasun kaxkarrak duen senar-emazte nagusiak etxea hartuko luke alokairuan. Irogailuarekin eta merke. ☎ 943 74 03 37
- ◆ Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua, ganbararekin eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83 ☎ 943 74 18 34
- ◆ Etxea salgai Mendaron. Sukaldea eta jangela guztiz ekipatuak (Vegasa eta AEG). 35 m2ko garaiea eta 12 m2ko ganbara ditu. ☎ 943 75 62 43

Bestelakoak

- ◆ Irakasle batek beste irakasle edo langile batzuekin pisua alokatuko luke Bilbon. ☎ 94 68 424 69 (Nerea. 19:00-21:00)
- ◆ Caritas-ek kotxe kapota dauka emateko. ☎ 943 74 15 09
- ◆ Mendaron bezero asko dituen taberna saltzen edo alokatzen da. ☎ 943 75 50 16

Agurak

- ◆ Zorionak Jaime Gabilondori azaroaren 8an urte bat beteko duela. Estibalizen partez.
- ◆ Zorionak Maria Idiakezi urriaren 30ean urteak bete zituelako. Gurasoen eta Josu eta Esther anai-arreben partez.
- ◆ Zorionak Patricia gaur urteak bete dituelako, guraso, anaia eta koinataren partez.
- ◆ Zorionak Itziar Furundarena mendarotarrari gaur urteak bete dituelako. Etxekoan partez, ondo pasa eguna.



◆ Zorionak Nora Landaluzeri azaroaren 8an 6 urte beteko dituelako. Familiaren partez.

◆ Zorionak Julen eta Maialeni hilaren 7an 8 urte beteko dituztelako. Familia



- ◆ Zorionak bere lehen urtebetetzeari Irati Juaristiri familia guztiaren partez. Bereziki, Aitor, Unai eta Aneren partez.



◆ Zorionak Gorka Casquerori gaur urte bat bete duela. Lehengusina Jone eta Laura, osaba-izeba eta



amama Isabelen partez musu haundi bat.

- ◆ Zorionak aita, gaur 38 urte bete dituzelako. Jose eta Laura alaben eta emaztearen partez, bihotz-bihotzez.



◆ Zorionak Nuri Revueltari azaroaren 5ean 14 urte bete zituelako. Guraso eta anai-arreben partez.



◆ Zorionak Saioa Gonzalezi hilaren 3an 11 urte bete zituelako. Gurasoen partez.



◆ Zorionak aita hilaren 10ean urteak beteko dituzelako. Musu handi bat familiaren partez.



◆ Zorionak Leireri hilaren 5ean 2 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak Aitor Diegori urriaren 29an 2 urte bete zituelako. Nagorenen partez.



◆ Zorionak Ane gaur urteak bete dituelako. Anaia Antxon eta familiaren partez, musu haundi bat.



GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37

ARROZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 943 74 29 94

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 943 74 03 96

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 943 74 14 80
☎ 908 77 29 32

ONGI

Urasandi, 8
☎ 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 907 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 943 74 07 89
☎ 908 14 30 40

PINTURAK

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 907 74 04 40

PINTURAS ELGOIBAR FERMIN

Urasandi, 57-3
☎ 943 74 39 91
☎ 909 76 28 80

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
☎ 943 74 29 87
☎ 989 58 47 23

IPINTZA

Trenbide, 25
☎ 907 41 78 67

KIDOK S.L.

San Roke, 17
☎ 943 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

BETI ARGI

Errosario, 6
☎ 943 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 943 74 13 76

ISOLAMENDUAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 943 74 30 94

COUPE



1.6i 16V 115cv
2.470.000 pta.

2.0i 16V 138cv
2.770.000 pta.

Hyundai COUPE



HYUNDAI
MENDARO AUTOAK

GIPUZKOARAKO BANATZAILE OFIZIA-

DONOSTIA

Zumalakarregi, 1
Tel: 943 31 22 00

ELGOIBAR

Olaso, 27
Tel: 943 74 32 00

EIBAR

Otaola, 27
Tel: 943 70 13